



ARAUTEGIA
SASKIBALOIA 2022

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak saskibaloiko EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ERRENDIMENDURA EKITEKO IBILBIDEAN INFANTIL MAILAN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Saskibaloï Federazioarekin lankidetzan. NESKEN txapelketa Judimendi Udal Kiroldegian eta MUTILEN txapelketa Zabalzana Udal Kiroldegian jokatu dira, biak Gasteizen (Araban), 2022ko maiatzaren 14,21,22,28 eta 29an. Hauxe duzue jokoen araudia:

1. JOKO SISTEMA

Itzulera bateko liga.

Partidak hamar minutuko lau denboratan jokatu dira (erlojua geldituta).

2. TALDEEN OSAERA

Lurralde bakoitzetik errendimendua ekiteko ibilbideko infantil mailako nesken eta mutilen txapelketetan sailkatutako bi lehenak parte hartuko dute.

Talde bakoitzak gutxienez 8 eta gehienez 12 jokalarikreditatu beharko ditu partida bakoitzerako, eta gehienez 3 teknikari.

Talde batek gutxienez 8 jokalarik aurkezten ez baldin baditu, partida berdinkatuko da. Parte hartzeko baldintzak betetzen dituen taldeko ordezkariak, instalazioan dagoen Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzako ordezkariak emango dion fitxa bete beharko du. Adostasuna eman ez gero eta partida baliozkotzat ematen bada, horren emaitza behin betikoa izango da. Adostasuna lortzen ez bada, eta araua bete ez duen taldea irabazlea izan bada, azken emaitza 2-0ekoa izango da, arauak



EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK **XXXIX JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI**



adierazten duen parte-hartzaileen kopurua aurkeztu duen taldearen alde. Partidaren emaitza araua bete duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.

Kirolariren bat Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako ordezkariak duen parte-hartzaileen zerrendan ez badago, kirolariak parte hartu ahal izango du, taldeko arduradunari aldeztu aurretik abisatuta. Ahalik eta lasterren, Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzatik, zerrendan agertzen ez den pertsonaren taldeko kide dela egiaztatuko du. Zerrendan agertzen ez den pertsona taldeko kidea ez bada, jokalariren zerrenda okertzat emango da, eta arau-haustea egin duen taldeak partida galduko du, baldin eta emaitza irabazia suertatzen bada, 2 – 0 emaitzarekin. Partidaren emaitza arau-haustea egin ez duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

Parte hartzen duten taldeen osaera Foru Aldundietan inskribatuta dagoena izango da. Ez da onartuko sailkatutako erakunde bereko lizentzia eduki arren, Euskadiko Eskola-Kirol Jokoetarako sailkatutako taldekoak ez diren jokalariren parte hartzea. Lege hori mantendu egin beharko da, nahiz eta egoera hau beste lurraldetan jokatu diren lehiaketetan baimendua izan.

2008 eta 2009an jaiotako jokalariek bakarrik hartu dezakete parte.

Talde guztiek kolore ezberdineko bi ekipamendu izan behar dituzte, bi taldek kolore berarekin jokatzeko. Kasu honetan, txapelketaren webgune ofizialean bisitari talde bezala azaltzen denak, bigarren janzkera erabili beharko du.



EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROLO JOKOAK
XXXIX JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI





3. JOKO ARAUAK

Jokalari bakoitzak lehen hiru denboretan gutxienez denbora oso bat jokatu behar du, denbora osoa denbora hasten denetik amaitzen den artekoa da, salbuespen hauetan izan ezik:

- Lesionatutako jokalaria: jokalariren batek denbora amaitzen ez badu lesionatu egin delako, denbora osoa jokatu duela onartuko zaio.
- Asistentzia jasoz gero ez dago jokalaria ordezkatzeko betebeharririk, betiere jokoa ez bada bi minutu baino gehiagoz eteten.
- Deskalifikatutako jokalaria: jokalariren batek denbora amaitzen ez badu deskalifikatu egin dutelako, denbora osoa jokatu duela onartuko zaio.
- 5 falta pertsonal egindako jokalaria: jokalariren batek denbora amaitzen ez badu 5 falta pertsonal egiteagatik, denbora osoa jokatu duela onartuko zaio.

Jokalari bakoitzak lehen hiru denboretan denbora oso batez egon behar du ordezkoen aulkian (denbora osoa denbora hasten denetik amaitzen den artekoa da), salbuespenik gabe. Jokalari lesionatua, deskalifikatua edo 5 falta pertsonalengatik kanporatua ordezkatzeko duen jokolariaren kasuan, jokaturako denbora ez zaio ordezkoen aulkian denbora oso bat egon da bezala onartuko.

Lehen bi denboretan ezin da ordezkapenik egin, halakoetarako izan ezik:

- Lesionatutako jokalaria bat ordezkatzeko.
- Deskalifikatutako jokalaria bat ordezkatzeko.
- 5 falta pertsonal egin dituen jokalaria bat ordezkatzeko.

Gainerako ataletan, FIBA jokoaren arau ofizialak aplikatuko dira, salbuespen hauek gehituko dira:

- Partida bat jokatzean talde batek markagailuan 50 puntuko aldea ateratzen badio besteari, partida bukatutzat joko da, Akta ofizialak une horretan adierazten duen emaitzarekin. Geratzen diren minutuekin beste topaketa bati ekingo zaio, erlojua eten gabe, aktan eta sailkapenean inolako eraginik izan gabe, salbuespen hauek kontuan hartuta:



EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK **XXXIX JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI**



- Faltak zenbatzen jarraitu da, aktan jaso gabe.
- Deskalifikatzeko moduko faltaren bat egonez gero, Kirol Batzordearen esanera jarriko da.
- Arbitroak ez du baloia ukituko banda eta hondoko sakeetan, faltak, ordezkapenak eta hutsarteak ematen direnean ezik.

Jokorako baloi ofiziala Baden markako BX471 (bi koloretakoa) edo BX 450 eredua izango da, mutilentzat, eta Baden markako BX 465 (bi koloretakoa) edo BX 445 eredua, nesKentzat.

4. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeru nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

5. AZKEN OHARRAK

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2022ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2020ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak, 2022ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2020ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f. Euskadiko Saskibaloia Federazioaren araudiak xedatzen duenari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeru, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.